

BALIOEN PROPOSAMENA

Diskoteka berri bat jarri nahi dugu martxan Erreterian, izan ere, egungo gazteentzat ez da nahikoa iada herri osoan zehar dauden bi diskotekekin. Erreteriak, bere 32,26 km²-tan 39.355ko jendetza du, gehienak gazteak eta haien gustura egokitutako toki baten bila dabilta, horregatik sortu nahi dugu diskoteka hau. Gure diskotekaren berezitasuna honakoa da: 13-18 adin tarteko gazteentzat diskoteka bat da eta jende berria ezagutzeko aukera ematen du. Berrikuntza honekin ez da beharrezkoa Erreterian bizi direnak herritik ateratzea, bertan egin nahi baita diskoteka, hortaz, herritarrontzat askoz eskuragarriago izango da.

Bezeroak gure diskotekara etorriko balira, ez lirateke Erreteritik atera beharko gazteen diskoteka batera joateko; guk saldutako sarrera mugatuak erosiz etor zaitezke herritarrak diskotekara. Ondorioz diru kantitate handiak aurreztuko lituzke beste diskotekekin alderatuta. Gainera bezeroek erosotasuna irabaziko lukete, izan ere, herrian bertan erosiko lituzkete sarrerak. Gure proposamenak, honako balioak izango lituzke:

Nobedadea, gure herrialdean ez dugulako oraindik horrelako diskotekarik asmatu eta guk diskoteka hau sortzen badugu, gazte askok disfrutatu ahalko lukete beraiei gidatutako diskoteka batetaz, horrek dakar jende askok etorri nahiko lukela, azken finean, gazteak bere giroa sortuko dute generazio berdineko beste gazteekin batera eta oso lagungarria izango litzake proiektu berri honentzat.

Alde batetik, festa giroa egoteko, programazio moldakorra eskaini nahi dugu hainbat ekitaldi eskainiz; dantza gauetatik, zuzeneko musika saioetaraino, gustu musikal eta lehentasun ugari erakartzeko. Horretaz aparte, tematikak eta ekitaldi bereziak antolatu nahi ditugu; mozorro-jaiak adibidez emozioa eta berritasuna mantentzeko. Ekintza hauek sare sozialetan argitaratuko genituzke, horrela bezeroak eguneratzeko.

Beste aldetik, edarien eta musika barietatea eskaini nahi dugu bertaratzen diren guztien gustuak asetzeko. Edariei dagokionez, alkoholik gabeko edari sorta zabala eskaini nahi dugu, aldiz, musikari dagokionez, herriari inkesta bat proposatuko diogu gure bezero gazteen gustu desberdinak asetzeko.

Balio kualitatiboari dagokionez, gure diskotekak giro energetikoa izango luke, izan ere, argiztapen ikusgarria, LED pantailak eta efektu bisual zirraragarriak dituen energiaz beteriko atmosfera sortzeko diseinatuta dago. Horrez gain, aire zabaleko gunea izango luke, konkretuki, aire zabaleko espazio bat, horrela, arnasa hartzeko eta dantzen arteko aire freskoaz gozatzeko aukera izango dute.

Balio kuantitatiboari dagokionez, prezio onean salduko lirateke sarrerak, hastean zehar asteburuetan baino prezio baxuagoa izango lukete kontuan hartu behar dugulako, erabilgarritasun handiagoa izango dutela asteburuetan, izan ere, astean zehar gazteak ikasten aritzen dira eta ez dute diskotekara joateko denborik. Noizean behin, promozio bereziak eskainiko dira, hau da, deskontuak gazteek dirutza gastatu gabe gozatu ahal izateko.

Gure proiektuaren protagonistak gazteak dira eta gure helburua haien segurtasun-estandar altuak mantentzea, segurtasun-langile gaituekin eta bezeroari arreta emateko talde batekin, esperientzia segurua eta atsegina bermatzeko izango da. Legea zorrotz beteko dugu adingabeen segurtasunarekin lotutako lege eta araudi guztiak zorrotz betez; sarbide-kontrola, adin-murrizketak eta bertara iristeko edo joateko dauden garraio publikoak barne.

Esandako guztia kontuan hartuta, lehen gure inguruan ez zegoen gazteentzat eskuragarri zegoen diskoteka bat gure herrian, baina orain guk bat aurkeztuko dugunez, gazte askoren eskura jarriko genuke proiektu hau, bai guretzat eta bai beraientzat errentagarria izanda.